



Irati Hiri-Hondakin Solidoen Mankomunitatearen kontu orokorra (2023)



2024ko urtarrila



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA	3
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK	4
I. IRITZIA	5
III.1 Finantza-fiskalizazioko iritzia, aurkakoa	5
III.2 Legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioko iritzia, aurkakoa.....	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA	6
IV.1 IV.1 Finantza-fiskalizazioari buruzko aurkako iritziaren oinarria.	6
IV.2. Legedi-betetzeari buruzko iritzi salbuespenunaren oinarria.....	8
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK	10
VI. ENFASI-PARAGRAFOA.....	11
VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA	12
VIII. MANKOMUNITATEAREN ERANTZUKIZUNA.....	13
IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	14
X. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK	16
1. GEHIGARRIA. MANKOMUNITATEAREN 2023KO EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA	17
2. GEHIGARRIA. IRATI HIRI HONDAKIN SOLIDOAK KUDEATZEKO MANKOMUNITATEA.....	20
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	22
4. GEHIGARRIA. TXOSTENEN SALBUESPENEN BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA	24
5. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOAREN OHARRAK ETA AURKITUTAKO BESTE GORABEHERA BATZUK.....	25
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	41
NAFARROAKO COMPTOS GANBERARI ALEGAZIOAK	
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	



I. Sarrera

Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateko (aurrerantzean, Mankomunitatea) lehendakariak erakundearen egoera ekonomikoari buruzko fiskalizazio-txosten bat eskatu zuen 2023ko urriaren 30ean.

Eskaera horri erantzunez, Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean xedatutakoari jarraituz, Mankomunitatearen 2023ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu du, bai eta legedi-betetzea ere.

Landa-lana 2024ko ekainetik abuztura bitarte egin du auditoretzako bi teknikaririk eta auditore batek osatutako lantalde batek. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzara ere izan du.

Jarduketa horren emaitzak jakinarazi zitzaizkien Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateko lehendakariari eta Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateko lehendakari ohiari, kasua bazen egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkez zituzten, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ezarritako epea iraganik, alegazioak aurkeztu ditu Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateko lehendakariak, eta txosten honetan jaso dira, Ganbera honen erantzunarekin batera.

Eskerrak ematen dizkiogu Mankomunitateari, lan hau egitean emandako laguntzagatik.

Txosteneko diru kopuruak biribildu egin dira, zentimorik ez agertzeko. Datuek balio zehatz bakoitzaren biribildura adierazten dute, eta ez biribildutako datuen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean kalkulatu daude, eta ez biribildutako balioen gainean.



II. Fiskalizazioaren helburuak, norainokoa eta mugak

Lan honen xedea da gai hauei buruzko gure iritzia ematea:

- Ea Mankomunitatearen 2023ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen, alderdi aipagarri guztietan, 2023ko abenduaren 31n hark zituen ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldian izandako emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, aplikatzeko den informazio finantzarioaren araudiari jarraituz, eta, bereziki, hor jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei.

- Ea 2023ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozen funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin, alderdi adierazgarri guztietan.

Fiskalizazioaren norainokoa Mankomunitatearen kontu orokorra da, zeinaren edukia, 272/1998 Foru Dekretuan ezartzen denez, honako egoera-orri hauek baitira:

- Aurrekontu-likidazioaren espedientea.
- Egoera-balantzea eta galera-irabazien kontua.
- Eranskinak: diruzaintzako egoera, etorkizuneko gastuen eta diru-sarreraren konpromisoen egoera, baloreen egoera eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuen oroitidazkia.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzailetzaren txostena.

2023ko ekitaldiko kontu orokorra eginda dago, baina ez zen onetsi Mankomunitatearen batzar orokorrean, xede horretarako 2024ko maiatzaren 22an deitu zenean.

Legedi-betetzeari dagokionez, norainokoak barne hartzen ditu txosten honen 5. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketak.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2023ko ekitaldia da, baina egiaztapen asko eta asko egin ditugu aurreko ekitaldien gainean ere, hartzekodunei eta zordunei dagokienez nagusiki, beharrezkoak izan baitira justifikatu gabeko eragiketen jatorria ezagutzeko eta ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Gure lanaren norainokoa mugatu dute honako urritasun hauek:

- Gastuei buruzko informazio ezak eta kontabilizatu gabeko diru-sarrerek.
- Itxitako aurrekontuetako, aurrekontuz kanpoko eta diru-sarreretako eragiketen kontabilitate-dokumentuen ziurtagiririk ez izateak.
- Dokumentu-euskarririk gabeko BEZ aitorenpenek.





I. Iritzia

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatearen kontu orokorra fiskalizatu du, zeinak barne hartzen baititu nagusiki 2023ko abenduaren 31ko egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta aurrekontu-likidazioaren espedientea.

Orobat, Mankomunitatearen 2023ko legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioa ere egin du.

III.1 Finantza-fiskalizazioko iritzia, aurkakoa

Gure iritiz, gure txosteneko "Finantza-fiskalizazioko aurkako iritziaren oinarria" atalean deskribatutako alderdiek eragin handia dutenez, 2023ko Kontu Orokorra ez du irudi leiala erakusten, alderdi esanguratsu guztietan, Mankomunitatearen ondareari eta 2023ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, ez eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian izan dituen emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere jarraituz informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-arloko printzipio eta irizpideei.

III.2 Legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioko iritzia, aurkakoa

Gure ustez, gure txostenaren "Legedi-betetzeari buruzko iritziaren oinarria" atalean azaldutako alderdiek eragin oso handia dutenez, eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Mankomunitatearen 2023ko ekitaldiko kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa ez datoz bat, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.



IV. Iritziaren oinarria

Kanpo-kontroleko erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa; eta, zehazkiago, finantza-fiskalizazioei eta legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 200 eta ISSAI-ES 400 arauetan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontroleko organoen fiskalizazioari buruzko gida praktikoak erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, gure txosteneko “Kontuen Gamberaren erantzukizunak” atalean, kontu orokorraren fiskalizazioari eta legedi-betetzeari dagokienez.

Fiskalizatutako entitatearekiko independenteak gara, kontu orokorrari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du finantza-fiskalizazioko eta legedi-betetzeari buruzko gure iritzi negatiboari eusteko.

IV.1 IV.1 Finantza-fiskalizazioari buruzko aurkako iritziaren oinarria.

Gure iritziarekiko salbuespen dira honako alderdi hauek:

- Akats garrantzitsuak aurkitu ditugu, eta probablea da identifikatu ezin izan ditugun beste akats batzuk ere egotea, garrantzitsuak horiek ere, saldo-deuseztapenekin, kontabilizatu gabeko eragiketekin eta gastu eta diru-sarrera konpentsatuekin lotutakoak, eragiketen kontabilitatea ez baita egin arau-esparruan ezarritako kontabilitate-printzipioen eta -irizpideen arabera.

Hauek dira aurkitutako akats garrantzitsuenak:

- Ekitaldiko zordunen saldoan dirulaguntza arruntei dagozkien 10.111 euro daude jasota, baina oker kontabilizatuta daude, eta deuseztatu egin behar dira. Bestalde, ez dira kontabilizatu 54.842 euroko diru-sarrerak, partzuergoak Mankomunitateari zor dizkionak errefus- eta ontzi-frakzioen bilketagatik.

- Itxitako ekitaldietako zordunen saldoa 103.435 euroan gainbaloratuta dago, kobratuta eta deuseztatuta dauden diru-sarrerak hartzen baititu barnean.

- Foru Ogasunak Mankomunitatearekiko duen BEZ zordunari dagozkion aurrekontuz kanpoko zordunen saldoa 4.406 euroan azpibaloratuta dago.

- Ekitaldiko hartzekodunen saldoa 41.461 euroan azpibaloratuta dago, ez baitira kontabilizatu pabiloi-alokairuari eta bolumen handikoen bilketari dagozkien gastuak.





- Itxitako ekitaldietako hartzekodunen saldoa 57.332 euroan gainbaloratuta dago, bi aldiz kontabilizatutako gastuak edo justifikatu gabeko gastuak jaso baitira.

- Aurrekontuz kanpoko hartzekodunen saldoa 180.508 euroan azpibaloratuta dago, batez ere ez delako kontabilizatu partzuergoari partzuergo-tasagatik zor zaiona.

- Aurrekontu-emaizari doikuntza gisa egotzitako 14.515 euroko finantzaketa-desbideratze negatiboa eta 71.003 euroko finantzaketa-desbideratze metatu negatiboa, diruzaintza-gerakinean sartuak, okerrak dira, kontuan hartutako gastuek ez baitute finantzaketa atxikirik.

Aurreko paragrafoetan adierazitako saldoak zuzenduta, 2023ko abenduaren 31n zegoen Diruzaintza Gerakina -279.225 eurokoa izanen litzateke; hau da, kontabilizatuta zegoena baino 344.781 euro gutxiago.

- Barne-kontrol eskasa, ez baita egiten finantzen egoera-orrietako akatsak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko egin beharko litzatekeen kontrolik.

- Honako oker hauek daude diruzaintza-kudeaketan:

- Bereizgabeki egiten da funts-erabilera finantza-entitateetan, eta hiru kontu korronteetatik bitan Mankomunitateko lehendakaria ez da ageri saldoak erabiltzeko pertsona baimendu gisa.

- Ordainketen kudeaketak ez dio erantzuten diruzaintza-funtsen erabilgarritasunaren araberako aurreikuspen bati, eta ez da irizpiderik finkatu ordainketak egiteko eta lehenesteko.

- Diruzaintza-tentsioak arintzeko, 2023ko martxoan diruzaintzako mailegu bat hitzartu zen, 35.000 eurokoa, zer eta, urte bereko urtarrilean, BEZari zegozkion 14.095 euroren itzulketa eskatu ahal izan ziotenean Foru Ogasunari.

- Ez da inon ageri erabilera orokorrerako azpiegituren eta ondasunen epigrafean erregistratutako 3,03 milioiko saldoari erantzuten dion inbentariarik. Epigrafe horretan inbertsio guztiak kontabilizatu dira, ibilgetu materialeko elementuak bereizi gabe.





IV.2. Legedi-betetzeari buruzko iritzi salbuespendunaren oinarria

Legedi-betetzeari buruzko gure iritziarekiko salbuespen dira honako alderdi hauek:

- Hornitzaile berarekiko munta txikiko kontratu gisa izapidetu dira segidako zerbitzu-emateak eta hornidura errepikakorrak, zeinen balio zenbatetsiak munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez izapidetuak izan ahal izateko onartutako gehieneko zenbatekoa gainditzen duen. Honako zerbitzu eta hornidura hauenak dira:

Kontzeptua	Aitortu-tako bete-behar garbiak (ABG) 2020	Aitortu-tako bete-behar garbiak (ABG) 2021	Aitortu-tako bete-behar garbiak (ABG) 2022	Aitortu-tako bete-behar garbiak (ABG) 2023	Gastua, guztira
Erregaiak	49.012	53.032	66.306	62.195	230.545
Edukiontzia biltzea eta garraiatzea	9.694	27.256	25.787	27.734	90.471
lbilgailuen mantentze-lanak	20.937	28.361	17.900	21.385	88.583
Aseguruak	13.550	13.828	14.073	14.937	56.388
Gai organikoen kudeaketarako laguntza-plana	7.865	19.530	18.887	4.441	50.723
Agentzia exekutiboa	10.911	9.234	3.316	10.471	33.932
Zaborteziaren mantentze-lanak	3.717	3.717	3.717	12.939	24.090
Argia	3.201	4.181	5.118	6.780	19.280
Kontabilitate-aholkularitza	5.107	4.077	3.715	5.649	18.548
Guztira	123.994	163.216	158.819	166.531	612.560

Kontratazio Atarian ez da argitaratu munta txikiko kontratuen hiru hilean behingo informaziorik.

- NAOen ez zen argitaratu 2023rako behin betikoz onetsitako aurrekontua, eta hori ezinbesteko baldintza da indarrean sar dadin.

- Mankomunitateko hondakin-zerbitzuko langileen 2019-2021erako lan-hitzarmena, azkena onetsitako hitzarmena, ez zen izapidetu maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretuan –lan-hitzarmen kolektiboen erregistroari eta gordailuari buruzkoan– eta urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuan –Langileen Estatutuarenean– ezarritakoari jarraituz. Izan ere, ez zitzaion aurkeztu bera erregistratzeko eskumena duen lan-agintaritzari, eta, beraz, ez zitzaion bidali bera gordailutzeko eta NAOen argitaratzeko eskumena duen organo publikoari.

- Ez ziren ez onartu ez argitaratu 2023ko ekitaldian aplikatutako zabor-bilketagatikotasaren tarifak.

- 2018an, 2021ean, 2022an eta 2023an, Mankomunitateak posta elektronikoko bidez agentzia exekutiboari eskatu zion eten zezala Agoizko Udalaren eta egoitza Agoitzen duten beste entitate publiko batzuen (ikastola, kultur-etxea, ikastetxe publikoa, suhiltzaileak, musika-eskola, Kanpondoa, balio anitzeko zentroa,





Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta udal-hiltegia) zabor-tasagatiko 2019tik 2022ra bitarteko zorraren premiamendu-prozedurazko ordainarazpena, baina ez da inon agertzen zordunak geroratzerik, zatikatzerik edo konpentsaziorik eskatu zuenik. 2023ko urrian, Agoizko Udalak eta Agoizko erakunde publikoek 2019tik 2022ra bitarteko zabor-tasa sartu zuten; guztira, 20.345 euroko zenbatekoa sartu zuten, gehi beste 2.497 euro errekar-gu-kontzeptuan, zeina araudian ezarritako ehuneko 20a baino txikiagoa den zenbait kasutan. Ez zen berandutze-interesik kobratu.

- Mankomunitateak zorrak bidali zizkion agentzia exekutiboari premiamendu-prozedura bidez bil zitzan, eta, gero, nagusia soilik kobratzeko agindu zion, zegokion errekar-gurik gabe. Gutxienez 13 zergaduni aplikatu zitzairen prozedura hori.





V. Auditoretzako gai giltzarriak

Auditoretzako gai giltzarri dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko lege-betetzeaz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu kontu orokorra osoki aintzat hartuta egin dugun auditoretzaren testuinguruan eta kontu horri buruzko gure iritzia lantzean, eta ez dugu bereiz azaltzen horien gaineko iritzirik.

Txosten honetako “Finantza-auditoretzako iritziaren oinarria, aurkakoa” atalean eta “Legezkotasunari buruzko iritziaren oinarria, aurkakoa” ataletan azalduko gaiak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako ezein gairen berri ematen.





VI. Enfasi-paragrafoa

Ohartarazi nahi dugu 2023ko ekitaldian finantza-egoera zaila bizi zela, idazkari eta kontu-hartzailearen txostenean azaldu bezala. Egoera zaila zen, hain zuzen ere, baliabide arrunten aurrezpen gordina ez zelako zorraren finantza-kargari erantzuteko behar bestekoa, eta diruzaintza-tentsioak zeudelako, diruzaintzako hiru mailegu ituntzea ekarri dutenak. 2023ko abenduaren 31n, eta behin fiskalizazioan hautemandako akatsak zuzenduta, diruzaintza-gerakina -279.225 eurokoa zen.

Finantza-egoerak okerrera egin zuen 2022ko ekitalditik 2023kora, diru-sarrera arruntak ehuneko lau murriztu eta, aldiz, funtzionamendu-gastuak mantendu egin baitziren, koadro honetan ikusten den eran:

Adierazlea	2022*	2023	2023/2022 aldea (%)
Diru-sarrera arruntak	739.670	712.356	-4
Funtzionamendu-gastuak	694.980	697.584	0,4
Aurrezki gordina	44.690	14.772	-67
Finantza-zama	43.838	44.037	0,4
Aurrezki garbia	852	-29.265	-3.535

*Auditatu gabeko ekitaldia.

Gai horri dagokionez, gure iritzia ez da aldatu.



VII. Beste gai batzuei buruzko paragrafoa

Honako hauek nabarmentzen ditugu:

- 2023ko kontu orokorra birformulatu egin beharko da batzar orokorrak onetsi baino lehen, fiskalizazioan hautemandako eta txosten honetan adierazitako akatsak zuzentzeko.

Egin dugun fiskalizazioan, gorabeherak topatu ditugu langileen kudeaketan, diru-sarreretan eta kontratazio administratiboan, eta barne-kontrolako ahuleziak eta kontabilitate- eta aurrekontu-gorabeherak ere aurkitu ditugu, egindako transakzioak oker kontabilizatzea eragin dutenak; beraz, ez dago bermerik kontabilitate-informazioa osoa eta zehatza dela ziurtatzeko.

- Kontuen Ganberak ez du fiskalizatu Mankomunitatearen 2022ko kontu orokorra.



VIII. Mankomunitatearen erantzukizuna

Mankomunitateko idazkari eta kontu-hartzailearen ardura da kontu orokorra osatzea, erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren eta ekonomia- eta aurrekontu-emaitzen irudi fidela emateko moduan, erakundeari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoaren arau-esparruarekin bat etorritz.

Mankomunitateko gobernu- eta zuzendaritza-organoek bermatu behar dute, halaber, kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Mankomunitateko batzar orokorrak ez zuen onetsi 2023ko ekitaldiko kontu orokorra, 2024ko maiatzaren 22an aurkeztua.

Mankomunitatearen erantzukizuna da, halaber, beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatu ahal izateko kontu orokorretan iruzurraren edo akatsen ondoriozko oker materialik ez dagoela eta egindako jardueran lege-urratzerik ez dagoela.





IX. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure helburuak dira honako hauek egiaztatzea arrazoizko ziurtasunez: kontu orokorraren osotasunean ez dagoela iruzur edo errorearen ondoriozko akats materialik, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, erregulartasunari buruzko fiskalizazio-txosten bat eman ahal izateko, zeinak gure iritzia jasoko baitu.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun-maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik akats material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Okerrak iruzurraren edo akatsen ondoriozkoak izan daitezke, bai eta legedia ez betetzearen ondoriozkoak ere, eta materializat hartzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta eta, betiere, arrazoiz aurreikus badaiteke txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo-kontrolako organoen araudiarekin bat etorritik, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Kontu orokorrean iruzur edo errorearen ondoriozko oker materialak egoteko arriskuak identifikatu eta balioesten ditugu, auditoretzako prozedurak diseinatzeko eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzinari oinarria emateko. Iruzurraren ondoriozko oker material bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko akats materialaren kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean, tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.
- Barne-kontrolari buruzko ezagutza lortzen dugu, fiskalizaziorako esanguratsua dena, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.
- Ebaluatzen dugu ea aplikatutako kontabilitate-politikak moduzkoak ote diren, ea kontabilitate-estimazioak egokiak diren eta ea egokia den kudeaketa-organoak emandako informazioa.
- Kontu orokorraren aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea kontu horrek zehatz irudikatzen dituen transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Erakundearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste auditoretza-proba planifikatuen norainokoaz eta horiek egiteko uneaz aritzeko, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuez eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarriz ere. Entitateko gobernu orga-





TENA, 2023

IRATI HIRI HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEAREN KONTU OROKORRARI BURUZKO FISKALIZAZIO-TXOS-

noari jakinarazi zaizkion alderdien artean, zehazten dugu zein izan diren kontu orokorraren fiskalizazioan garrantzi handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzako funtsezko gaiak.





X. Gomendio garrantzitsuenak

2023ko kontu orokorraren eta legedi-betetzearen fiskalizazio-lanaren emaitza gisa, honako gomendio hauek nabarmentzen ditugu:

- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratua egitea eta onartzea, ibilgetua osatzen duten elementuen saldoa arrazoizkoa dela egiaztatu ahal izateko.*
 - *Funtsak baliatzeko plan bat onestea, zeinetan ordainketak planifikatuko diren diruzaintzako erabilgarritasunaren arabera eta ordainketei lehentasuna emanen zaien.*
 - *Kontratu-lizitazio prozedura egokia izapidetzea halako prestazioetarako non balio zenbatetsiak gainditu egiten baititu munta txikiko kontratuetarako ezarritako mugak.*
 - *Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean ezartzen diren neurriak aplikatzea, diruzaintzako gerakin negatiboa zuzentzeko.*
 - *Ekitaldi bakoitzean behin betikoz onetsitako aurrekontu orokorra NAOn argitaratzea.*
 - *Mankomunitatearen estatutuak aldatzea Elo udalerria sartzeko eta entitatea osatzen duen langileria zehazteko, besteak beste.*
 - *Langileen lan-hitzarmena izapidetzea aplikatzekoa den legedian ezarritakoari jarraituz, erregistratu, gordailutu eta NAOn argitaratu ahal izateko.*
 - *Hondakin-kudeaketari buruzko ordenantza bat onestea, egokitua egonen dena Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko eta ekonomia zirkularrerako apirilaren 8ko 7/2022 Legea.*
- Beste gomendio batzuk 5. gehigarrian jaso ditugu, fiskalizazioaren beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Asunción Olaechea Estanga auditore andreak proposatuta jaulki da, zeina izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2024ko azaroaren 14an.

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador





1. gehigarria. Mankomunitatearen 2023ko ekitaldiko kontu orokorraren laburpena¹

2023ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

Gastu-aurrekontuaren betetzea Sailkapen ekonomikoa

Gastuak	Hasierako kreditua	Aldak.	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebehargarbiak (ABG)	Ordainketak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa (%)
1. Langileria-gastuak	421.310	0	421.310	401.284	397.527	95	99
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	297.100	0	297.100	294.347	216.394	99	74
3. Gastu finantzarioak	4.600	0	4.600	5.087	5.087	111	100
4. Transferentzia arruntak	6.800	0	6.800	1.954	475	29	24
6. Inbertsio errealak	647.206	0	647.206	16.725	10.023	3	60
9. Finantza-pasiboak	38.500	0	38.500	38.950	38.950	101	100
Guztira	1.415.516	0	1.415.516	758.347	668.456	54	88

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubidegarbiak (AEG)	Kobrantzak	(%) Betetakoa (%)	Kobrantzak
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	651.300	0	651.300	628.900	565.178	97	90
4. Transferentzia arruntak	124.000	0	124.000	83.455	0	67	0
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprob.	10	0	10	1	1	12	100
7. Kapital-transferentziak	608.696	0	608.696	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	31.510	0	31.510	0	0	0	0
Guztira	1.415.516	0	1.415.516	712.356	565.179	50	79

¹ Onetsi gabeko kontu orokorra.





2023ko ekitaldiaren aurrekontu-emaitza

Kontzeptua	2023	Zuzenketak	2023
Aitortutako eskubide garbiak	712.356		712.356
Aitortutako betebeharrak garbiak	758.345		758.345
Aurrekontu-emaitza	-45.989		-45.989
Doikuntzak			
Finantzetaren desbideratze positiboa	0		0
Finantzetaren desbideratze negatiboa	14.516	-14.516	0
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	0		0
Aurrekontu-emaitza doituia	-31.473		-45.989

2023ko diruzaintzako gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	2023	Zuzenketak	2023 zuzendua
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	181.173	-109.140	72.033
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	147.177	-10.111	137.066
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	224.921	-103.435	121.486
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	23.508	4.406	27.914
(-) Bilketa zaileko eskubideak	214.433		214.433
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	286.208	164.638	450.846
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	89.891	41.461	131.351
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	62.879	-57.332	5.547
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	133.438	180.509	313.947
(+) Diruzaintzako funts likidoak	99.588		99.588
(+) Finantzetaren desbideratze metatu negatiboa	71.003	-71.003	0
Diruzaintzako gerakina, guztira	65.557		-279.225
Diruzaintzako gerakina, finantzeta atxikiko gastuengatikoa	0		0
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiengatikoa	0		0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	65.557		-279.225





Egoera-balantzea, 2023ko abenduaren 31koa

Deskribapena	2022ko ekitaldia	2023ko ekitaldia	Deskribapena	2022ko ekitaldia	2023ko ekitaldia
A Ibilgetua	3.014.824	3.031.549	A Funts berekiak	2.981.970	2.977.707
1 Ibilgetu materiala	0	0	1 Ondarea eta erreserbak	2.941.820	2.962.277
2 Ibilgetu ez-materiala	0	0	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	40.150	15.429
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	2.901.571	3.031.549	3 Kapitaleko dirulaguntzak		
4 Herri-ondasunak	113.253	0	B Arrisku eta gastu- etarako hornidurak		
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	0	C Epe luzeko zorrak	301.779	262.829
C Zirkulatzailerak	444.278	495.195	D Epe laburreko hartzekodunak	175.354	286.208
8 Zordunak	657.395	395.606			
9 Kontu finantzarioak	86.883	99.588			
Aktiboa, guztira	3.459.103	3.526.744	Pasiboa, guztira	3.459.103	3.526.744





2. gehigarria. Irati Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea

Honako udalerrri hauek osatzen dute Irati Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea: Aoiz/Agoitz, Arce/Artzi, Ibargoiti, Izagaondoa, Lizoáin/Arriagoiti, Lónguida/Longida, Monreal/Elo, Unciti, Urraulgoiti, Urraulbeiti eta Urrotz-Hiria. 11 udalerrri horiek 5.926 biztanle zituzten guztira 2023ko urtarrilaren 1ean.

Nafarroako hondakin-mankomunitateen mapa honetan ikusten da Irati Mankomunitatearen kokapen geografikoa.



Mankomunitatearen estatutuak 1993ko otsailaren 8ko NAO-n argitaratu ziren. Elo udalerrria ez da Mankomunitateko kide gisa aipatzen.

Mankomunitatearen xedea da hura osatzen duten udalerrietako hiri-hondakin solidoak biltzea eta tratatzea.

Batzar orokorra da ordezkari-organoa. Lehendakaria, lehendakariordea eta batzorde iraunkorra dira gobernu-organok. Batzorde iraunkorra da Mankomunitatearen gobernu- eta kudeaketa-organoa, eta honako hauek osatzen dute: lehendakaria, lehendakariordea, idazkari eta kontu-hartzailea, botorik gabe, zaborregia edo instalazioa dagoen udalerraren ordezkari bat eta batzarrak izendatutako bi kide.

Estatutuetan ez da jaso Mankomunitatea osatzen duten langileei buruzko xedapenik, idazkari eta kontu-hartzailez gain.





2023ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Mankomunitatearen funtsezko datu ekonomikoak eta langile-arlokoak:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2023-12-31n
Mankomunitatea	712.356	758.345	8

Mankomunitateak kanpoko profesional batekin kontratatuta izan zuen kontabilitateko aholkularitza 2024ko ekainera arte; eta nominak egiteko lana, lan-arloko aholkularitza-etxe batekin.



3. gehigarria. Arau-esparrua

Honako hauek osatzen dute, funtsean, 2023ko ekitaldian Mankomunitateari aplikatzekoa zaion araubide juridikoa:

Estatuko araudia

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-jasangarritasunari buruzkoa, eta hori garatzeko araudia.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.
- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, ekonomia zirkularrerakoa.
- 31/2022 Legea, abenduaren 23koa, Estatuko 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen gastuen arloan aplikatu beharreko xedapenak).

Foru araudia eta toki erakundekoa

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 14/2018 Foru Legea, ekainaren 18koa, hondakinei eta haien fiskalitateari buruzkoa.





- Uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legea, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari eta kontabilitate sinplifikatuari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270 eta 273 Foru Dekretuetan ezartzen da, bai eta Nafarroako toki entitateen aurrekontu egitura onesten duen irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuan ere.
- Mankomunitatearen Estatutuak.
- Ordenantzak.





4. gehigarria. Txosteneko salbuespenei buruzko informazio gehigarria

Gehigarri honetan, informazio gehigarria jaso dugu kontu orokorrari buruzko finantza-iritzia-errekiko salbuespen batzuei buruz, horiek hobeki ulertu ahal izateko.

- Honako hauek dira 10.111 euroko zenbatekoz oker kontabilizatutako dirulaguntza arruntak:

- Nafarroako Gobernuarengandiko 3.640 euro, herritarren parte-hartzerakoak, Mankomunitateak atzera egin zuelako eta Nafarroako Gobernuak deuseztatu zu-elako.

- 2.967 euro, Hondakinen Funtsetik.

- 3.504 euro Hondakinen Partzuergotik, beste frakzio batzuen tratamenduagatik, 2024an sortua.

- Itxitako ekitaldietako zordunen saldoan kobratuta edo bertan behera utzita dauden diru-sarrerak hartzen ditu barnean, 103.442 euroko zenbatekoz; horiek ez dute kobratzeko gisa agertu behar. Honako hauei dagozkien:

- Zabor-tasagatiko 1.535 euro, 2003. eta 2004. urteetakoak.

- 69.198 euro oker kontabilizatuak “beste diru-sarrera batzuk” kontzeptuan, zaborteziaren dirulaguntza bati dagozkionak, dagoeneko kobratuta baitaude.

- 32.709 euro Partzuergoaren dirulaguntzari dagozkionak, 2020ko bigarren seihilekoko partzuergo-tasarekiko konpentsazio bidez kobratu zirelako.

- Honako hauek dira aurrekontuz kanpoko hartzekodunen kontuan hautemandako kontabilitate-okerrak:

- Kontabilizatu gabe daude 2023ko bigarren eta hirugarren lauhilekoetako partzuergo-tasari dagozkion 181.444 euro, hondakin-partzuergoari ordaintzeko daudenak.

- Ez dira kontabilizatu Ogasunari PFEZ kontzeptuan ordaindutako 1.795 euro.

- Oker sartu dira Gizarte Segurantzako atxikipenei dagozkien 2.730 euro.





5. gehigarria. Erregularitasunari buruzko fiskalizazioaren oharra eta aurkitutako beste gorabehera batzuk

Ondoren, ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeen informazio gehigarriren bat ere.

Orobat, gehitu ditugu Mankomunitatearen kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetze aldera Ganbera honen ustez beharrezkoak diren gomendioak.

5.1 Finantza-egoera

Mankomunitatearen batzar orokorrak 2022ko abenduaren 1ean eman zion hasierako onespena 2023ko aurrekontuari, diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena 1.415.516 eurokoa izanik.

2023rako aurrekontuaren likidazioak eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketak honako zifra hauek erakusten dituzte:

Adierazleak	2022*	2023	Aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	779.897	712.356	-9
Aitortutako betebeharrak, guztira	745.788	758.345	2
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	739.670	712.356	-4
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	694.980	697.584	0,4
Kapitaleko diru-sarrerak	40.227	0	-100
Kapitaleko gastuak	6.970	16.725	140
Saldo ez-finantzarioa	72.537	-7.040	-110

*Auditatu gabeko ekitaldia

- 2023an aitortutako eskubideek 712.356 euro egin zuten; hain zuzen, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 50. Betetze-maila hain da baxua Foru Administrazioak ez zuelako esleitu zaborte giko inbertsioa finantzatzekoa zen 598.696 euroan zenbatetsitako dirulaguntza, obra hori, lizitatu gabe dagoena, ez zelako exekutatu.

Aitortutako eskubideen ehuneko 68 zaborren tasari dagokio, eta ehuneko 15 ontzi-salmentari, diru-sarrera nagusien artean.

2023ko eskubide aitortuak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko bederatzi txikiagoak izan ziren. Diru-sarrera hauen aldeak nabarmenduko ditugu:

Diru-sarrera	Aitortutako eskubideak (2023)	(%) Aldea	Arrazoiak
Partzuergoarentzako transferentzia, konpostatze eta kimaketarako	61.306	-53	2022an kontabilizatzea 2021eko diru-sarrerak
Paper eta kartoiaren salmenta	15.465	-56	Prezio-fluktuazioa
Ontzi-salmenta	107.954	79	





- 2023an aitortutako betebeharrak 758.345 euro egiten dute. Horien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 54koa da, zabortegiaren inbertsioa, aurrekontuan 630.206 euroan finkatua, ez baitzen exekutatu.

2023an aitortutako betebeharrak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko bi gehiago izan ziren.

- Taula honetan ageri dira Mankomunitatearen 2022 eta 2023ko ekitaldietako gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	% 2022	% 2023	Finantzaketa-iturria	% 2022	% 2023
Langileria	54	53	Zergak (zaborren tasa)	63	68
Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	39	39	Transferentziak	24	12
Inbertsio errealak	1	2	Prezio publikoak eta beste diru-sarrerera batzuk	13	20
Finantza-zama	6	6			
Guztira	100	100		100	100

Ikus daitekeen eran, gastuen egitura ekonomikoa 2022ko eta 2023ko ekitaldietakoaren antzekoa da, eta zaborren tasa da horien finantziazio-iturri nagusia; diru-sarrereren guztizkoaren ehuneko 68 egiten dute.

Azpiarragarria da 2022ko ekitalditik 2023ko ekitaldira diru-sarrereren kontzeptuek portzentajezko pisuan izandako aldakuntza: zaborren tasaren eta prezio publikoen pisua handitu egin zen, eta transferentziena, berriz, 12 ehuneko txikitu zen 2022ko ekitalditik 2023kora.

Finantza-egoeraren azterketa:

Adierazlea	2022 ⁽¹⁾	2023	Aldea (%)
Aurrezki gordina	44.690	14.772	-67
Finantza-zama	43.838	44.036	0,45
Aurrezki garbia	852	-29.264	-3.535
Finantza-zamaren indizea	% 6	% 6	0
Aurrezki gordinek diru-sarrera arruntan gainean zenbat egiten duten, %	% 6	% 2	-67
Zor bizia	301.779	262.829	-13
Zorpetze-maila (zor bizia / diru-sarrera arruntak)	41	37	-10
Aurrekontu-emaizta doitua	34.109	-45.989 ⁽²⁾	-235
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	44.134	-279.225 ⁽²⁾	-733
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubide garbiak)	% 63	% 68	8
Kobratzea zalantzazkoa den zordunen indizea (kobratzea zalantzazkoa den zordunen saldoa/kobratzeko dauden zordunak)*100	% 69	% 58	-16

(1) Auditatu gabeko ekitaldia

(2) Zenbateko zuzenduak.





- 2023an sortutako aurrezki gordina 14.772 eurokoa izan zen, 2022koa baino ehuneko 67 txikiagoa, diru-sarrera arruntak ehuneko lau murriztearekin bat funtzionamendu-gastuak (langileria-gastuak, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak eta transferentzia arruntak) aurreko ekitaldian sortutakoen antzekoak izan baitziren.

Aurrezki gordina ez da izan nahikoa finantza-kargari erantzuteko, eta horrek 29.264 euroko aurrezki garbi negatiboa eragin du.

- Zor bizia 262.829 eurokoa zen 2023ko abenduaren 31n: diru-sarrera arruntak ehuneko 37 da hori.

- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin zuzendua 279.225 euro negatiboa da.

- 2023ko funtzionamendu-gastuak 2022koen antzeko zenbatekoak dira, eta 2021ekoak baino ehuneko bost txikiagoak, langileria-gastuak bereziki. Langileria-gastuek, hain zuzen ere, gastu guztien ehuneko 54 egiten dute, eta ehuneko hamar murriztu dira 2021etik 2023ra.

Laburbilduz, egoera ekonomikoa zaila da, eta okerragotu egin da 2022koaren alderatuta.

Mankomunitatearen zorrak dakarren finantza-zamari ezin izan zaio baliabide arruntekin aurre egin, eta horrek inbertsioen exekututzea baldintzatzen du. Gainera, diruzaintza-tentsioak ditu, eta ez du baliabiderik hurrengo ekitaldian aurrekontu-aldaketak finantzatzeko, negatiboa delako gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina.

Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen ondorioetarako, Mankomunitatea tokiko administrazio publikotzat jotzen da.

Pandemiak eragindako krisiaren ondorioz, Europako Batzordeak Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren babes-klausula orokorra aplikatu zuen 2020an, eta haren aplikazioa luzatu zuen 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietarako.

2022ko irailaren 22an, Kongresuaren Osoko Bilkurak ikusi zuen Espainiako Konstituzioaren 135.4 artikuluan eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Legearen 11.3 artikuluan aurreikusitako aparteko inguruabarrak gertatzen zirela; hori horrela, 2023an, bertan behera gelditu ziren arau fiskalak, eta eraginik gabe utzi zituzten aurrekontu-egonkortasuneko helburuak, gastu-araua eta finantza-iraunkortasuna.

Mantendu egin ziren zorpetze-eragiketak baimentzeko araubidea eta merkataritza-zorraren jasagarritasunerako betebeharrak.





Merkataritza-zorraren jasangarritasunari dagokionez, kontu-hartzaileak ez du jakinarazi ea hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak gainditu ote duen berankortasunari buruzko araudian aurreikusitako 30 eguneko gehieneko epea.

Aztertutako laginean ikusi dugu 30 eguneko epea nabarmen gainditu dela, oro har, aztertutako gastuen ordainketan.

5.2 Langileria-gastuak

Mankomunitatearen 2023ko ekitaldiko langileria-gastuak 401.284 eurokoak izan ziren, 2022an baino ehuneko bat gutxiagokoak. Haien exekuzio-maila behin betiko kredituen ehuneko 95 izan zen.

Kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptu ekonomikoa	ABG, 2022	ABG, 2023	Aldea (%)
Idazkariaren ordainsariak	5.725	6.120	7
Administrariaren ordainsariak	23.000	24.839	8
Bilketa-langileen ordainsariak	148.788	154.862	4
Konpostatze-langileen ordainsariak	63.465	63.288	0
Langile kontratatuen ordainsariak	49.073	49.068	0
Gizarte Segurantza	112.978	103.107	-9
Langileen ikastaroak	352	0	
Guztira	403.381	401.284	-1

Plantilla organikoa eta lan-eskaintza publikoa (LEP)

Mankomunitatearen batzar orokorrak 2022ko abenduaren 1ean eman zion hasierako onespena 2023ko ekitaldiko plantilla organikoari. Plantillaren behin betiko onespena 2024ko ekainaren 17an argitaratu zen NAOn, Ganbera honek hala eskatuta. Lanpostu hauek barne hartzen ditu:

Lanpostua	Plaza-kop.	Egoera
Idazkaria	1	Zerbitzu-eginkizuna
Ofizial administraria	1	Aktibo
Konpostatze-teknikaria	1	Lanpostu hutsa
Gidaria	4	Hutsik
Zerbitzu anitzetako langilea	1	Lanpostu hutsa
Guztira	8	

Lanpostu guztiak, idazkari eta kontu-hartzailearena dena izan ezik, horretan Agoizko Udaleko idazkariak baitihardu, lan-arloko araubide juridikokoak dira, eta Mankomunitateko hondakin-zerbitzuko langileen lan-hitzarmena aplikatzen zaie, 2019-2021 aldirako onetsia. Mankomunitatearen lan-hitzarmenak xedatzen du Nafarroako Foru Administrazioko langile lan-kontratadunen hitzarmen kolektibora joko dela, hitzarmenean bertan xedatuta ez dagoen orotarako.

2023ko abenduaren 31n, zortzi lanpostuetatik, sei hutsik zeuden.





Mankomunitateko lehendakariak lan-eskaintza publiko bat (LEP) onetsi zuen 2022ko maiatzaren 12an, lau gidari-postu, konpostatze-teknikari postu bat eta zerbitzu anitzetako langile postu bat barne hartzen zituena, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen babesean. 2022ko abenduaren 1ean, Mankomunitateko batzar orokorrak erabaki zuen partzialki atxikitzea uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen, 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze-prozesuak gauzatzeko neurriak ezartzen dituenaren, II. tituluan jasotzen den araubideari.

2022ko maiatzaren 24ko NAO n argitaratu zen LEPa.

2022ko abenduaren 2an, Mankomunitatearen lehendakariak deialdi bat onetsi zuen, eskaintako sei plazak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko, eta 2022ko abenduaren 19ko NAO n argitaratu zen deialdia.

Abenduaren 28ko 20/2021 Legean merezimendu-lehiaketa salbuespenezko prozesutzat jotzen da, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen etenik gabe aldi baterako estalita egondako plazetarakoa.

Deitu diren plazek bete egiten dute antzinatasun-baldintza hori.

Izendapen-proposamena 2024ko maiatzaren 27an argitaratu zen Mankomunitatearen webgunean, eta abuztuaren 30ean, NAO n.

Egonkortze-prozesuaren ostean, langile finkoz beteta daude plaza huts guztiak, eta ez dago aldi baterako betetako posturik.

Honako hauek dira langileria-gastuen fiskalizaziotik atera ditugun konklusioak:

- 2022an, zerbitzu anitzetako langilearen postua E mailan kokatuta zegoen, eta 2023ko plantilla organikoan, berriz, D mailan. Aldaketa hori hemen ezarritakoan dago justifikatuta: urriaren 24ko 1/2018 Foru Lege Dekretuan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloko neurri batzuk onesten dituenean, zeina langile horiei soilik zaien aplikatzekoa, eta ez toki-entitateei.

Toki-esparruan, mailaz igo ahal izateko, nahitaezkoa da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritakoa betetzea, eta arau horrek ezartzen du, besteak beste, kasuko hautaprobak gainditu behar direla.

- Konpostatze-teknikari, gidari eta zerbitzu anitzetako postuei plantillan esleitutako maila-osagarriak ehuneko 12an gainditzen du hitzarmenak D mailarentzat ezarritako soldata, eta ehuneko 15ean, E mailarentzat ezarritakoa.

- Idazkari eta kontu-hartzaileari emandako ordainsariak eta administrari-ofizialari ordaindutako aparteko orduek ez dute Gizarte Segurantzaren kotizatzen. Mankomunitateko idazkari eta kontu-hartzaileak ez du Gizarte Segurantzaren alta eginda Mankomunitatean betetzen duen posturako.





- Ez dago plantillako lanpostuak jasotzen dituen langile-zerrendarik.
- Plantilla organikoan ez da esaten idazkari eta kontu-hartzaile eginkizunak Agoizko Udaleko idazkariak egiten dituela. Mankomunitateko idazkari-postua oker ageri da zerbitzu-eginkizunetako egoeran.
- 2023ko azaroko nominak ordaintzean eta kontabilizatzean ez da aplikatu langileen greba-egunagatik aplikatu behar zen beherapena. Langileek sobera kontratutakoa itzuli dute, Ganbera honek eskatuta.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, honako hau gomendatzen dugu:

- *Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan maila-igoerari buruz ezarritako eskakizunak betetzea.*
 - *Langileen lansari-osagarriak araudian ezartzen denera egokitzea.*
 - *Gizarte Segurantzari kotizatzea idazkari eta kontu-hartzailearen ordainsariagatik eta langileei ordaindutako aparteko orduengatik.*
 - *Plantillari atxikitzea postuak betetzen dituzten langileen zerrenda.*
 - *Plantilla organikoan zuzen jasotzea Mankomunitateko idazkari eta kontu-hartzailearen egoera.*
 - *Langileen nominak berrikustea horiek ordaindu baino lehen.*





5.3. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 294.247 eurokoak izan ziren, eta haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 99koa izan da. Ehuneko bi igo dira, 2022an aitortutakoekin alderatuta.

Honako kontzeptu ekonomiko hauei dagozkien ondasun eta zerbitzuetako gastuen guztizkoaren ehuneko 90 aztertu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako bete-behar garbiak (ABG), 2022	ABG, 2023	2023/2022 aldea (%)
Ibilgailu eta makinatarako erregaiak	66.306	62.195	-6
Zerbitzu-funtzionamendua	57.223	50.290	-12
Bolumen handikoen bilketa	35.014	38.124	9
Ibilgailuen mantentze-lanak	37.814	35.761	-5
Partzuegoaren isuriaren kanona	10.439	23.158	122
Egoitza- eta argi-gastuak	13.996	15.733	12
Aseguruak	14.073	14.937	6
Agentzia exekutiboa	3.316	10.471	216
Kontabilitate-aholkularitza eta lan-aholkularitza	10.547	8.317	-21
Birziklapenaren jaialdia	0	7.798	

Hauexek izan dira berrikuspenaren konklusioak:

- Oro har, kontabilizatutako ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak dagozkien fakturekin justifikatuta eta onetsita daude, eta ez dira epean ordaindu.

- 2021etik 2023ra bitarte, oker kontratatu da 2021az geroztik erabiltzen ez zen pabiloiaren aseguruua, gutxienez ere 4.355 euroko guztizko primarekin. bertan behera utzi zen 2024an; aseguruaren urte horretako prima kobratu, eta aurreko ekitaldietako itzulketa erreklamatu zen.

- Akatsak hauteman ditugu honako gastu hauen kontabilizazioan eta aldi baterako denbora-egozpenean:

- Bolumen handikoen bilketarako partidan ez dago sartuta 2023ko urriko gastua, 3.429 eurokoa –ez da kontabilizatu–, ez eta 2023ko abendukoa ere, 4.716 eurokoa; horiek zerbitzu-funtzionamenduaren kontzeptuan kontabilizatu dira, oker. 2023ko gastu osoa, 42.652 eurokoa, ordaintzeko dago ekitaldia ixteko unean.

- 2023an, isurtze-kanonaren partidan, 7.048 euro kontabilizatu dira, 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoei eta 2023ko lehenengo hiru hiruhilekoei dagozkienak. Horien artetik, 2023ko abenduaren 31n, jasota dago artean ordaintzeko daudela 11.251 euro, 2023ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako kanonari dagozkionak.





- 2023an, bikoiztuta kontabilizatu dira 8.625 euro, 2022an Nasuvinsa sozietate publikoari pabiloiak alokatzeagatikoak, eta, aldiz, ez dago kontabilizatuta 2018tik 2021era bitarteko pabiloi-alokairua, ez eta 2023ko alokairua ere (9.143 euro), 38.032 euroko zenbatekoz guztira. 2023ko abenduaren 31n, Nasuvinsari ordaintzeko dagoen alokairuaren zenbatekoa 46.657 eurokoa da.

- Zerbitzu-funtzionamenduaren partidan, 70 kontabilitate-ohar daude jasota; horietatik 11 negatiboak dira, oker kontabilizatutako gastua ezeztatzeko egindakoak baitira.

- Oro har, gastuak ez dira kontabilizatzen aplikazio informatikoan erregistratutako kasuan kasuko hartzekodunaren kargura; horren ordez, “zenbait hartzekodun” kontu orokorrari egozten zaizkio.

5.4 Transferentzia arruntetako gastuak

2023an, Mankomunitatearen transferentzia arruntek 1.954 euro egin zuten, eta behin betiko kredituen % 29 izan ziren. Aurrekontuan 6.800 euro sartu ziren, eta horien artean zeuden, besteak beste, garapenerako lankidetzarako zenbait ekarpen, baina ez ziren exekutatu.

Gastu hori NELS sarerako (Nafarroako Toki Entitateen Jasangarritasunerako Sarea) urteko kuotari dagokio 1.479 euroko zenbatekoan, eta gainerakoa Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari. NELS sarerako 2023ko kuota ez da ordaindu.

5.5. Inbertsioak

2023ko ekitaldian, inbertsioak 16.725 eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko bi egiten dute. Gastu horren ehuneko 77, 12.939 euro, uren kontrol eta jarraipenerako programako gastu arruntari dagokio.

Behin betiko kredituen ehuneko hiru baizik ez da exekutatu, ezen “Urrozko zabortegia. Isurketa-masa atera eta tratatzea. 2. fasea” inbertsioa, aurrekontuan jaso zena 630.206 euroko zenbatekoz, ez zen exekutatu, foru administrazioren-gandik jasotzea espero zen finantzaketa ez zelako eman.

Inbertsio hori behin-behinekoz jaso zen 2017-2019 eperako toki azpiegituren planean 2017ko maiatzean, obraren lehenengo fasearekin batera, baina ez zen behin betiko jaso, Mankomunitateak ez zuelako bete dokumentazioa aurkezteko epea, epea amaitu eta zortzi hilabete beranduago aurkeztu baitzuen obraren exekuzio-proiektua. Era berean, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren Toki Azpiegituren Zerbitzuak 2023ko maiatzaren 4an emandako txostenak dio Mankomunitateak behar diren neurriak hartu beharko dituela zabortegiaren erasanak konpontzeko.





Mankomunitateak ez-onartzeari buruzko erreklamazio bat aurkeztu zuen 2023ko irailean, argudiatuta proiektuaren lehenengo fasearen amaiera ez zela berriaz aitortua izan, eta Toki Azpiegituren Zerbitzuak ez zuela errekerimendurik egin proiektuko leheneratze-irtenbideei zegokienez.

2023ko urriaren 31n, Nafarroako Gobernuak ez onartzea erabaki zuen, eta Mankomunitateak administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztu zuen, zeinaren izapideak eten egin baitziren 2024ko ekainaren 5ean, alderdiek hala eskatuta, 60 egunez.

Etete horren arrazoia izan zen inbertsioa Hondakinen Estatu Funtsaren eta Ingurumen Departamentuaren bidez finantzatzeko aukera zegoela.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2024ko urriaren 24ko dekretu baten bidez erabaki zen autoak behin-behinean artxibatzea, prozesuari berrekitea eskatzen den edo instantzia iraungitzen den arte.

Epe horretan, ebatzi gabe dago inbertsioaren finantzaketa.

5.6 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

“Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk” izeneko kapitulu ekonomikoan aitortutako eskubideek 628.900 euro egin zuten; hau da, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 97.

Honako hauek dira kapitulu hori osatzen duten diru-sarrera nagusiak eta horien 2022arekiko aldakuntza:

Kontzeptua	AEG, 2022	AEG, 2023	Aldea (%)
Zaborren tasa	489.982	487.491	-1
Ontzi-salmenta	60.243	107.954	79
Paper- eta kartoi-salmenta	35.051	15.465	-56
Errekarguak	3.504	11.986	242

Diru-sarrera horiek aztertu ondoren, honako **konklusio** hauek azpimarratzen ditugu:

- Batzar orokorraren 2021eko ekainaren 17ko osoko bilkuran eman zitzaion hasierako onespena hiri-hondakinen kudeaketa arautzen duen ordenantzari. Bi urte eta erdi geroago argitaratu zen NAOn, 2024ko urtarrilaren 30ean. Ordenantza fiskalak osoki argitaratu behar dira NAOn. Ordenantzan bertan ezartzen da bere behin betiko onespena NAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dela indarrean.

Ordenantza ez dago egokituta apirilaren 8ko 7/2022 Legera –hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, ekonomia zirkularerakoa–; aldiz, hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen printzipioei jarraitzen die.





- Zabor-bilketaren tasa arautzen duen ordenantza 2010eko martxoaren 19an argitaratu zen NAOn, ordenantza fiskal orokorrarekin batera.

2020ko abenduaren 21ean, Mankomunitatearen Batzar Orokorrek erabaki zuen 2021. urterako zabor-bilketaren tasagatiko diru-sarrerak 486.500 euroko zenbatekora arte handitzea. Tarifak zehazteko, 2020tik 2021era bitarteko bilketa-hazkundera ordainagiri-kopuruaz zatitu zen, eta 21 euro izan zen emaitza. Beraz, kopuru hori aplikatu zitzaien zergadun guztiei, kontuan hartu gabe zabor-bilketaren tasan subjektu pasiboaren ezaugarrien arabera ezarritako tarifa desberdinak (etxekoa, saltokiak, supermerkatuak, tabernak, industriak, etab.).

Tasaren aldaketa hori ez zen arautze-ordenantzaren aldaketa baten bidez izapidetu, eta aldatutako tarifak ez ziren argitaratu.

Beste alde batetik, tasa ez da finkatu zerbitzuaren kostuen arabera. Ez da egiten Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuen kontabilitate analitikorik, nahiz eta estatutuetan ezarrita dagoen eginen dela.

- Zabor-bilketaren tasa arautzen duen ordenantzak ezartzen du tasa horren zerga-kuotak handitu egingo direla Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoak finkatzen duen tarifan, eta partzuergoaren tarifak zabor-bilketaren tasarekin batera kobratuko direla.

Zabor-bilketaren tasarekin batera igortzen eta kobratzen da, baina Hondakinen Partzuergoari dagokion eta hari ordaindu behar zaion diru-sarrera bat da. Beraz, aurrekontuz kanpoko kontzeptu gisa kontabilizatu behar da.

Hona hemen gure gomendioak:

- *Zabor-bilketaren tasaren aldaketa ordenantza arautzailearen aldaketa baten bidez izapidetzea, eta onetsitako tarifak argitaratzea. Tasa horren zenbatekoa zerbitzuaren kostuaren arabera finkatzea.*

- *Borondatezko epean kobratu ez diren zorrak, behin epe hori bukatuta, zor horiek premiamendu-prozeduraren bidez kobratzeko eskumena duen agentzia exekutiboari igortzea, dagozkien errekarquak aplikatuta epe exekutiboan kobratutako zor guztiei, bai eta berandutze-interesak ere.*

- *Hondakin Partzuergoaren diru-sarrerak kontabilizatzea, errefus-frakzioaren eta ontzien bilketagatikoak.*

5.7 Transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerak

Transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerak 83.455 eurokoak izan ziren, eta horiek guztiak kobratzeko zeuden 2023ko abenduaren 31n.

Partzuergoaren konpostatzerako transferentzia da nabarmenena, 61.306 euroko zenbatekoarekin.





Transferentzia arrunten exekuzio-maila behin betiko aurreikuspenen ehuneko 67koa izan zen.

Txosten honen salbuespenei buruzko informazio gehigarriaren 4. eranskinean zehaztu dira transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerekin lotutako oker nagusiak.

- Ikusi dugu alde handiak daudela Mankomunitateak 2020tik 2023rako aldian Hondakin Funtsari eskatutako dirulaguntza arrunt eta kapitalekoen eta gastu onargarriaren arabera jasotako artean, honako taula honetan ikusten den eran:

Urtea	Eskatutako zenbatekoa	Onartutako zenbatekoa
2020	130.100	11.970
2021	172.425	35.389
2022	175.265	106.857
2023	44.318	5.388
Guztira	522.108	159.604

Hori horrela, 2020an, Mankomunitateak dirulaguntzak eskatu zituen 130.100 euroko zenbatekoz, eta 11.970 euro onartu zitzaizkion, aurkeztutako dokumentazioak ez zuelako betetzen deialdian eskatutakoa. Zenbateko horretatik, 2.124 euro kobratu zituen, diruz lagundutako lau jarduketetatik bakarria justifikatu baitzuen.

2019. urteaz geroztik, Mankomunitateak Economías Biorregionales (EBR) elkartaren laguntza teknikoa izan zuen, eta, elkarrekin berak dioenez, 2022an behintzat, zenbait oroitidazki egin zituen Mankomunitatea dirulaguntza batzuetara aurkez zedin; besteak beste, Hondakin Funtsaren dirulaguntzetara.

5,8 Zordunak

Itxitako aurrekontuetako zordunak

2023ko abenduaren 31n, itxitako ekitaldietako zordunen kontabilitate-saldoa 224.921 eurokoa zen, honela banatuta kontzeptu eta ekitalditan:

Kontzeptua	Zenbatekoa 2023/12/31n	Ekitaldiak
Beste diru-sarrera batzuk	69.198	2008
Zaborren tasa	123.014	2003tik 2022ra
Partzuergoaren dirulaguntza: inausketa, hondakina, eta abar	32.709	2020
Guztira	224.921	

- Guztizko saldo horretatik, 103.442 euro okerrak ziren, txosten honen salbuespenei buruzko informazio gehigarriaren 4. eranskinean zehazten den eran.





- 21.694 euroko aldea dago itxitako ekitaldietako kobratzeko dagoen zaborren tasa kontabilizatuaren eta agentzia exekutiboan dagoenaren artean. Alde hori sortu da, nagusiki, 2022ko 20.931 euro ez zitzaizkiolako jakinarazi agentzia exekutiboari.

- Epe exekutiboko zor-bilketa ez da hasi zorrak borondatezko epean kobratzeari dagokionez legez ezarritako epea amaitutakoan, zorrak ez baitzaizkio agentzia exekutiboari igorri epe hori amaitutakoan. Hori horrela, 2024ko irailaren 30ean, igorri gabe zegoen 2022 eta 2023. urteetako zor kobratugabea.

Kobratzeko epe exekutiboaren hasieran atzerapen nabarmen hori egoteak berekin dakar aldi horri dagozkion errekareruak ez kobratzea baldin zorrak borondatezko epea bukatutakoan ordaintzen badira eta artean agentzia exekutibora igorri gabe badaude. Honako hauek dira epe exekutiboko errekareruak:

- Ehuneko bosteko errekareru, berandutze-interesik gabe, premiamendu-probidentzia jaso baino lehen ordaintzen bada zorra.

- Ehuneko hamarreko premiamendu-errekareru murriztua, berandutze-interesik gabe, premiamendu-probidentziaren jakinarazpena jaso eta hilabete bateko epean ordaintzen badira zorra eta errekareru bera.

- Ehuneko 20ko premiamendu-errekareru arrunta gehi berandutze-interesak, premiamendu-probidentziaren jakinarazpena jaso eta hilabete bat igarotakoan ordaintzen bada zorra.

Mankomunitateak ez du ehuneko bosteko errekareru exekutiborik kobratu, ez eta berandutze-interesik ere.

Diru-sarreraren epe exekutiboko bilketaren kudeaketa Geserlocal enpresarekin kontratatuta dago. Ez da enkargu gisa izapidetu, eta ez dago zerbitzu horren kontratazio-espedienterik.

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Kobratu gabeko zorra agentzia exekutiboari bidaltzea, borondatezko epean kobratzeko epea amaitutakoan, epe exekutiboan premiamendu-prozeduraren bidez kobratzeko.*

- *Bilketa-epe exekutiboan kobratzea epe horri dagozkion errekareruak, bai eta berandutze-interesak ere.*

- *Oker kontabilizatutako zordun-saldoak zuzentzea.*





Aurrekontukoak ez diren zordunak

2023ko abenduaren 31n, aurrekontuz kanpoko zordunen saldoa 3.200 eurokoa zen. Egindako azterketan ikusi dugunez, nahiz eta saldoa ez den aldatzen, oker egotzita dago dagozkion kontzeptuetan, honako koadro honek erakusten duen bezala:

Kontzeptua	Zenbateko 23/12/31n	kontabilizatua	Zenbatekoa, egindako azterketaren arabera
Eratutako fidantzak		1.074	2.620
Aplikatzeko dauden gastuak		2.126	580
Guztira		3.200	3.200

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Eratutako fidantzen kontuaren eta aplikatzeko dauden ordainketen saldoa zuzentzea.*

5.9 Hartzekodunak

Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak

2023ko abenduaren 31n, itxitako ekitaldietako hartzekodunen kontabilitate-saldoa 62.879 eurokoa zen.

Ordaintzeko dauden kontzeptu ekonomiko nagusiak aztertu ditugu, koadro honetan jasota daudenak:

Kontzeptua	Zenbatekoa 2023/12/31n	Ekitaldiak
Zaborteja zigilatzea	23.325	2008
Pabiloiko obrak	19.149	2020 eta 2021
Egoitza- eta argi-gastuak	11.141	2013, 2014 eta 2022
Zaborteji zaharra kentzea	3.717	2020
Aztertutakoa, guztira	57.332	

- Ikusi dugu aztertutako saldo osoa, 57.332 eurokoa, oker kontabilizatuta dagoela hartzekodun gisa, eta ez du ordaintzeko dagoen gastu gisa agertu behar, gastu batzuk bikoiztuta kontabilizatu direlako, eta beste batzuetan ez delako justifikaziorik jaso.

- EBR elkarteari egindako ordainketak aztertu ditugu.

EBR elkarteak 63.489 euro fakturatu zizkion Mankomunitateari 2019tik 2023ra bitarte, Gai organikoen kudeaketarako eta errefusa frakzioaren prebentziorako 2019-2023 laguntza-planaren ezarpenean eta jarraipenean emandako laguntza teknikoagatik.

Ez da jasota gelditu lizitazio publikorik deitu zenik zerbitzu horiek elkarte horri esleitzeko; horren orde, munta txikiko kontratu gisa izapidetu ziren.





Ez da kontraturik jaso, ez eta EBR elkarteak eginen dituen lanen aurrekontu xehaturik ere. Jasota dago EBR elkarteak 2018ko irailetik 2019ko ekainera birtarteko aldirako egindako proposamen tekniko bat; 14.500 euro gehi BEZa adinako aurrekontua egiten dute hamar hileko aldi horretarako, honako lau esparru hauetan laguntza teknikoa emateagatik:

1.- Hondakinen kudeaketaren alorreko plangintza- eta ezarpen-prozesuak (gai organikoak eta garbiguneak).

2.- Hondakinen berreskurapenarekin eta tokiko merkataritzaren dinamizazioarekin lotutako moneta sozialaren ezarpena.

3.- Berotegi-efektuko gasen isurtzeen eta hobekuntza-eszenatokiaren zenbatespena, neurri zehatzak ezarriz eta kuantifikatuz.

4.- Hondakinen konpostatzearen jarraipenerako neurriak.

EBR elkarteak aurkeztutako fakturretan, adierazten da laguntza teknikoa eman zuela hondakinen kudeaketaren ezarpenean eta jarraipenean, baina ez dira zehazten aipatutako esparruetan egindako lanak. Ez da jasota gelditu elkarteak fakturatutako zerbitzuen jarraipenik egin duenik Mankomunitateak.

Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunen saldoa, 2023ko abenduaren 31n, 119.494 eurokoa zen, eta kontzeptu hauei zegokien:

Kontzeptua	Zenbatekoa 2023/12/31n
Gizarte Segurantza	4.157
Diruzaintzako mailegua	45.000
PFEZa	23.570
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	46.767
Guztira	119.494

Txosten honen salbuespenei buruzko informazio gehigarriaren 4. eranskinean zehaztu dira PFEZaren saldoan eta Gizarte Segurantzarenean aurkitutako oker nagusiak.

Gainera, ikusi dugu aplikatzeko dauden diru-sarreraren saldoko 43.862 euro dagozkiela 2009 eta 2010 urteetan Mankomunitateko kide diren zenbait udali sobera kobratu zitzaizkien diru-sarrerei; udal horiek ez daude identifikatuta kasu guztietan. Mankomunitateak horien itzulketa egin beharko du. Beste alde batetik, 2014an, udalen ekarpenengatiko aurrekontuko diru-sarreretan, 45.296 euro deuseztatu ziren, onespenean eta justifikaziorik jasota egon gabe; zenbateko horretatik, Agoizko Udalarari dagozkio 32.216 euro. Ezin dugu egiaztatzea eragiketa horiek elkarrekin zerikusirik duten.





Aurrekontuz kanpoko hartzekodunen saldoak erregularizatzea gomendatzen dugu; hots, ordainduta dauden kontzeptuen baja egitea.

5.10 Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ):

BEZaren azterketan, honako huts hauek aurkitu ditugu:

- Mankomunitateak BEZ aitorpenak aurkeztu ditu paper- eta kartoi-salmentagatik, garbigunearen kudeaketagatik eta ontzi-salmentagatik. Aitorpen horien harira Foru Ogasunean ordaindutako kuotetan, Mankomunitateak ez du aplikatu jarduera horiekin lotutako gastuetan jasandako BEZaren kenkaria.

- BEZ likidazioak oker kontabilizatuta daude, eta BEZaren kontabilitate-saldoak ez datoz bat Foru Ogasunari aurkeztutako likidazioetatik ateratzen diren saldoekin; zehazki, 4.406 euroko aldea dago Mankomunitatearen alde Foru Ogasunaren saldo zordunean. Ez da jaso Ogasunari aitortutako zenbatekoen justifikaziorik.

Honako hau gomendatzen dugu:

- *BEZarekin zergapetuta dauden jarduerekin lotutako gastuetan jasandako BEZaren kenkaria aplikatzea.*

- *Fiskalizazioan hauteman ditugun eta txosten honetan adierazten diren eragiketa bikoiztuak eta okerrak berrikustea, eta, hala badagokio, Foru Ogasunari aurkeztutako BEZ aitorpenak zuzentzea.*

- *Hiru hilez behin eta behar bezala kontabilizatzea Foru Ogasunari aurkeztutako BEZ likidazioak, eta aitorpen horietan adierazitako zenbatekoak jasota uztea.*

5.11 Diruzaintza

2023ko abenduaren 31n, 99.588 eurokoa zen saldoa, eta hiru finantza-entitateetan zegoen; horietako bat agentzia exekutiboak egiten dituen kobrantzearako erabiltzen zen.

2023ko abenduaren 31n, finantza-entitateetako bateko saldoa 615 eurokoa zen. 2023. urtean zehar, bederatzi mugimendu soilik erregistratu dira kontu horretan, eta 195 euro ordaindu dira komisiotan (90 euro, kontua mantentzeagatik).

Kontu orokorreko diruzaintzako egoera-orrian, zero saldo dute bi kontu ageri dira, finantza-entitateek egiaztatu ez dituztenak.

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Funtsak erabiltzeko baterako sinadura ezartzea, eta Mankomunitateko lehendakaria ahaldun gisa sartzeara finantza-kontu guztietan.*





- *Ia diruzaintza-mugimendurik ez duen finantza-kontu bati eustea komeni ote den aztertzea.*
- *Finantza-entitateekin negoziatzea transferentziengatik eta beste finantza-eragiketa batzuegatik ordaindu beharreko komisioak.*
- *Ezeztatutako finantza-kontuen baja egitea kontabilitatean.*





Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak

NAFARROAKO COMPTOS GANBERARI

MARÍA JOSE BEAUMONT ARISTUK, 15.806.929 H NAN zenbakia duenak, IRATI HIRI HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEAREN LEHENDAKARI den heinean, Kontuen Ganberarengana jo eta honako hau DIO:

Ikusi duela 2023ko Kontu Orokorren behin-behineko fiskalizazio-txostena, 2024ko azarokoa, 2024ko azaroaren 6an jasotakoa, lehendakariaren ebazpenarekin batera, zeinak hura onesten duen eta aztertzeko eta azaroaren 13ra bitarte alegazioak aurkezteko igortzen duen, eta honako alegazio hauek aurkezten dituela:

ALEGAZIOAK

1.- Txostena irakurrita, ondorioztatzen da guztiz justifikatuta zegoela fiskalizazio-eskaera.

2.- Eskaera hori 2023/10/30ean egin zen; hau da, 2023/10/04an lehendakaritza honek eta batzorde iraunkorreko kideek gure karguak hartu eta 26 egun soilik igarotakoan, eta 2023/10/09an lehendakaritza hau idazkari eta kontu-hartzailearekin bildu eta 21 egun soilik igarotakoan. Hain zuzen ere, idazkari eta kontu-hartzaile horrek eman zion lehendakaritzari entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioaren berri, ahoz eta partzialki bakarrik. Izan ere, ez 2023ko udal-hauteskundeen ostean batzar berria eratzeko bilkuran, 2023/09/26an egini-koan –irteten ari zen lehendakaritzak esan zuen entitatea txikia zela, baina punta-puntakoa, eta alderdi ekonomikoan nahiko sasoi ona zuela–, ez eta lehendakaritza eta batzorde iraunkor berriak hautatzean, ez zitzaigun eman egoera horri buruzko inolako dokumenturik.

3.- Entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko informazio partzial horri zegokion dokumentazioa ez zitzaigun eman 2023/10/17ra arte.

Urriaren 17 horretan bertan, batzorde iraunkorraren bilera egin zen, eta bilera horretan erabaki zen kanpo-auditoretza bat enkargatuko zela egoera horri buruz. Hurrengo egunetan, zenbait kudeaketa egin ziren hori abiarazteko, baina ez zen emaitza onik lortu.

Are gehiago, lehendakaritza honek errekerimendua egin zuen 2023/10/19an tasen ko-brantzari eta berankortasun-zerrenden egoerari buruz; hilaren 20an eman zidaten horren berri, eta horrela jakin genuen Agoizko Udala (Mankomunitateko hamaika kideetako bat) berankorra zela duela zenbait urtetik (2019tik 2022rako zorra ez zuen ordaindu hurrengo 31ra arte, eta alderdi nagusia eta errekarua –ez guztiak– soilik, berandutze-interesik gabe).

Azaldutako egoeraren aurrean, batzorde iraunkorrek 2023/10/25ean egin zuen bileran erabaki zen entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko fiskalizazio-txosten bat eskatzea Kontuen Ganbera horri.

4.- Mankomunitatearen Batzar Orokorrek 2024/05/22an eginiko bilkuran, aho batez erabaki zen idazkari eta kontu-hartzaileak eta kontabilitate-aholkulariak aurkeztutako 2023ko ekitaldiko kontuak ez onestea.

5.- 2024/06/26an, batzorde iraunkorrek erabaki zuen kontabilitatea gauzatzeaz arduratzen zen kanpo-profesionalaren zerbitzuak bertan behera uztea, eta hala jakin-arazi zitzaion idatziz 2024/06/28an, eta hark ez zuen inolako eragozpenik jarri.





6.- Batzorde iraunkorrak 2024/11/12an egindako bileran, honako erabaki hauek hartu ziren:

- 1.- Erakunde horri eskerrak ematea egindako lanagatik.
- 2.- X epigrafean (txostenaren 17. orrialdea) eta 5. eranskinean (26. orrialdetik 41.era) jasotako gomendio nagusi guzti-guztiak onartzea.
- 3.- Kontuen Ganberari jakinaraztea dagoeneko bete direla berak emandako gomendioetako batzuk; esate baterako:

- Caixa Bankeko kontua itxi zen 2024/09/20an.
- 2024/11/11n Nafarroako Rural Kutzari eskatu zaio sar dezala behean sinatzen duen lehendakari hau kontuen ahaldun gisa, kontu arruntean eta bilketarakoan –hor sartzen dira Geser Localen bilketa exekutibotik datozen ordainketak–.
- Ordainketak egiteko eta horiek baliatzeko irizpideak ezarri dira, eta Mankomunitatearen 2023ko eta lehenagoko zorren ordainketaz arduratu gara, bai eta, ahal izan den neurrian, 2024koenaz ere; ildo horretatik, ordainketa-egutegi bat negoziatu eta itundu da entitate hartzekodunekin, hala nola Nasuvin-sarekin, Traperosekin eta Hondakinen Partzuergoarekin.

- 4.- Kontuen Ganberari jakinaraztea betetzeko bidean direla berak emandako beste gomendioetako batzuk; esate baterako:

- Geser Local SL-ri enkargua egin zaio 2023ko kontuak birformula ditzan, eta arduratu dadin kontabilitateaz eta Mankomunitatearekiko zorrak bide exekutibotik biltzeaz.
- 2024/10/09az geroztik, lan-hitzarmen berri bat negoziatzen ari gara langileen ordezkariekin, eta bukatzeaz dago prozesua. Hitzarmena datorren abenduan egingen den Batzar Orokorreari igorriko da, onetsi dezan.
- Orobat, Estatutu eta Ordenantza berriak lantzen ari gara, zerbitzu-prestazio-gatiko tarifak barne.

5.- Joan den urrian, administrari laguntzaile bat aldi baterako kontratatze prozedura egin da Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez. Horrek arreta osoa eta efizienteagoa ahalbidetuko du bulegoarentzat eta herritarrentzat, oro har. Hautatutako pertsona azaro honen 4an hasi zen zerbitzu ematen.

6.- Kontuen Ganberaren txostenaren 9. eta 10. orrialdeetan aipatzen diren errekarquak eta berandutze-interesak eskatuko zaizkio Agoizko Udalari, eta gauza bera egingen da txostenaren 10. orrialdean aipatzen diren errekarquak ordaindu ez zituzten zergadunekin.

7.- Idazkari eta kontu-hartzailearen egoerari buruzko txosten juridikoa eskatuko zaio Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiari, txostenaren 30. orrialdean aipatzen denari dagokionez; hau da, ematen zaion ordainsariak ez duela kotizatzen Gizarte Segurantzari, eta ez dagoela Gizarte Segurantzari alta eginda Mankomunitatean betetzen duen posturako.

8.- Aurreko puntuan esandako gauza bera txostenaren 30. orrialdean aipatzen den beste gai honi dagokionez: administrariari ordaindutako aparteko orduek ez dutela Gizarte Segurantzari kotizatzen.





9.- Aurreko lehendakaria eta haren zuzendaritzapeko batzorde iraunkorreko kideak gaitzestea proposatuko da egiten den lehenengo batzarrean; edonola ere, horrek ez du esan nahi ez zaienik erantzukizunik exijituko, kasua bada. Horretarako, Ganbera horren zerbitzuen txosten juridikoa eskatzen da.

10.- Idazkari eta kontu-hartzailea gaitzestea proposatuko da egiten den lehenengo batzarrean, eskatzekoa litzatekeen erantzukizuna ezertan kaltetu gabe. Horretarako, Ganbera horren zerbitzuen txosten juridikoa eskatzen da. Halaber, kargutik kendua izatearen kalterik gabe.

11.- Economías Bioregionales (EBR) sozietateari eskatuko zaio froga ditzala 2019tik 2023ra bitarte 63.489 €ko zenbatekoarekin emandako fakturei dagozkien lanak; txostenaren 38. eta 39. orrialdeetan aipatzen da afera hori.

Edonola ere, erakunde horren esanetara gelditzen naiz edozein gauza argitzeko.

Agoitzen Iruñerako, 2024ko azaroaren 13an.

Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatearen lehendakaria: María José Beaumont





Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna

Eskerrak ematen dizkiogu Irati Hondakin Solidoen Mankomunitateko lehendakariari aurkeztutako alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio, zeina behin betiko txosten bihurtzen baita, haiei buruz irizten baita ezen egindako fiskalizazioaren azalpen bat direla eta ez dutela horren edukia aldatzen.

Ganbera honen zerbitzuek gai jakin batzuei buruzko txosten juridikoa emateko eskaerari dagokionez, jakinarazten dizugu ezin dugula zure eskaera bete, gure zerbitzu juridikoak gure erakundearen barne-aholkulariak direlako, eta ez delako haien eginkizuna beste entitate batzuentzat txostenak egitea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 14an.

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

